



7. Funtsezko baliabideak

Gure enpresaren balorezko proposamena garatu ahal izateko eta bezeroengana iritsi ahal izateko beharrezkoak izango diren baliabideak hiru dira: baliabide fisikoa, finantza baliabideak eta giza baliabideak.

-Baliabide fisikoa: Makinak leasing bidez lortuko ditugu Alemaniako ekoizleekin negoziatuz. Modu honetan, makinak erabili ahal izango ditugu diru gehiegi inbertitu gabe, eta etekin gehiago lortu dugunean, makinak erosiko ditugu.

-Finantza baliabideak: Lehenik eta behin, "Birziklatzen irabazi" taldeko bost bazkideok diru-kopuru bat ezarriko dugu hasierako diru-sarrera gisa (2000 euro). Bestalde, gure makinetan bilduriko plastiko guztia plastikoa birziklatzeko enpresa batera eramango dugu eta enpresa honek dirua emango digu

-Giza baliabideak: Marketing-az eta gure produktua zabaltzeaz arduratuko den pertsona bat edukiko dugu. Makinetarako konponketen arduran beste hiru langile edukiko ditugu.